

Lan-legepeko hezitzaileak eta irakasleak

B A T Z O R D E P A R E K I D E A

2014ko uztailaren 9an

Bilera honetan eztabaidatu diren gaiak Hezkuntza Bereziko langile laborekin erlazionatuta daude. Hauek dira:

1. **Berritzegunetako esleipenak.** Hezkuntza Laguntzako Espezialista eta Arabako fisioterapeuta langile finkoen esleipenen gorabeherak aztertzen dira. Aipagarriena Bizkaiko egoera da. Lurralde honetan plazaren baten hizkuntz eskakizuna zehaztu gabe dago eta, hori dela eta, perfilik gabeko langile finko guztiak oraindik kokatu gabe daude.

2. **Eibarko esleipenerako lanpostuen aurreikuspena.** Aurreikusita zeuden lanpostuen zerrendetan aldaketak ematen ari dira oraindik. Orokorrean aldaketa hauek lan jardetakoak dira eta horiei gehitu behar zaizkie Eibarrera eramaten diren beste plaza batzuk (IRALEko eta sindikal liberazioak, errelebo kontratuak...). Hori dena lotu behar da.

Aurten, zentro terapeutikoen plazak berriro Eibarren esleituko dira eta, beraien berezitasunagatik, hauek hartzea guztiz boluntarioa izateko aukera aztertu zen.

Puntu honetan STEE-EILASek bi proposamen aurkezten ditu:

- ⌚ **Ordezkoek ohiko etxebizitzatik 50 km haratago ordezkapen partzialeari uko egiteko eskubidea.** Irakasleei aplikatzen dieten neurri berdina gure kolektiboetako langile ordezkoari ezartzeko. Ikastetxeetara joateak kostu berdina dauka langile guztientzat, beraz, logikoena da guztiek eskubide berdina izatea. *Administrazioak hau onartzeko prest azaldu zen.*
- ⌚ **Ordezkoentzako udako puntuen konputua.** Hezkuntza Bereziko lan-legepeko kolektiboen sindikatuon aldarrikapen historikoa da ordezkoentzako udako kobraketa lortzea eta beti Administrazioaren ezetza jaso dugu. STEE-EILASek ikastetxeetan zerbitzuak bete dituzten langile guztien baldintzak neurri bakar batekin neurtu ditzala eskatu dio Administrazioari eta aldarrikapen horrekin jarraituko dugula argi adierazi dugu.


Horregatik, eta helburu horrengana hurbiltzeko asmoarekin, lehenengo

pausua ematea eskatzen dugu, hau da: *2014-15 ikasturtetik aurrera (hau barne), ikasturtean 165 egun edo gehiago lan egin duten lan-legepeko Hezkuntza Bereziko langile ordezkoiei, uztaileko eta abuztuko puntuak konputatzea ordezkapenatarako izangaien zerrendetan.*

Hau aztertzeko geratu zen, baina aukera asko ditu aurrera ateratzeko.

3. **Ordutegiak egiteko jarraibideak.** Puntu honetara ailegatzen garenean, Administrazioak sindikatuok ordutegiak egiteko ikasturte hasierako jarraibideei egindako ekarpenak errepasatzen ditu. Gure ekarpenekin saihestu nahi ditugu ikasturtero ikastetxeetan ematen diren hainbat arazoak: bazkaltzeko eta koordinaziorako denbora, erreferentziazko zentroaren zehaztapena ibiltarientzat, lehenengo joan-etorriaren denboraren konputua... Baina Administrazioak oso argi dauka: ekarpen hauek ez badoaz haiek nahi duten ildotik, ez dituzte onartzen. Urtero bezala.

STEE-EILAS



ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA	NAFARROA
Eulogio Serdán, 5. behea 01012 – Gasteiz Telf.: 945 14 1104 Email: araba@stee-eilas.org	Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu) 48003 – Bilbo Telf.: 94 410 02 98 Email: bizkaia@stee-eilas.org	Baso-txiki, 30-34 (atzekaldea) 20006 – Donostia Telf.: 943 46 60 00 gipuzkoa@stee-eilas.org	Joaquin Beunza, 4 - 6 31014 – Iruñea (Rochapea) Telf.: 948 21 23 55 nafarroa@stee-eilas.org